



Protagonistak


JABO H. PIZARROSO · IKER SANCHO · HARKAITZ CANO · ISABEL ETXEBERRIA · BEÑAT SARASOLA · EIDER RODRIGUEZ · VERDE PRATO · AINHOA URIEN · LEIRE VARGAS · CRISTINA FERNÁNDEZ CUBAS · ELVIRA NAVARRO · PILAR AIZPURUA · LUIS MATEO DÍEZ · JOSÉ MARÍA MERINO · JUAN PEDRO APARICIO · JOXEMARI ITURRALDE · JUAN MONTIEL · JESÚS CAMARERO · MARÍA FERNANDA AMPUERO · JON BILBAO · KARMELE JAIO

[2024ko gonbidatuak \(pdf\)](#)



Jabo H. Pizarroso

Kultur begiralea, idazlea eta kazetaria. *Estado Crítico* kritika literarioko aldizkari digitaleko kolaboratzailea, eta Gasteiz irratiko kolaboratzailea “Universo Hache” sailean. Horrez gain, honako liburu hauek idatzi ditu: *Suplicando Ternura a los Gatos* (Mono Azul editora, 2006), *Errekaleor* (Libros.com, 2019), *Hijos de Atocha* (Ignacio Aldecoa saria, 2020) eta *El silencio del Virus* (DNA, 2020).



literatura euskaratzea izan du beti xede. Lau errusiar idazleren liburuak argitaratu ditu: 2008an Sergei Dovlatoven *Konpromisoa*. 2009an Andrei Platonoven *Lubakia*. 2017an Svetlana Alekseievitx nobel saridunaren *Gerrak ez du emakume aurpegirik*. Azkenik, 2022an Anton Txekhoven ipuin bilduma bat, *31 ipuin* izenburupean.



Harkaitz Cano

Harkaitz Cano idazketaren ia arlo guztietan aritu da: nobela (*Twist*, *Fakirraren ahotsa*), ipuina (*Neguko zirkua*, *Beti oporretan*), haur literatura (*Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez*), antzerkia (*Sisiforen paperak*, *Hondamendia*) zein poesia (*Pozaren erdia*, *Ulu egiteko bolondres bila*). Itzultzaile gisa, Sylvia Plath, Anne Sexton eta Raymond Carverren poemak ekarri ditu euskarara, besteak beste.



Isabel Etxeberria

Isabel Etxeberria Ramírez itzultzailea eta UPV/EHuko Itzulpengintza eta Interpretazioko graduko irakaslea da. Susa argitaletxeko *Munduko Poesia Kaierak* bildumaren zuzentzailea da Maialen Berasategirekin batera. Ikertzaile gisa testu itzulien ezaugarriak aztertzen dihardu. 2019an Euskadi saria jaso zuen, Itzulpengintza arloan, Alice Munroren *Lagunak*, *etsaiak*, *ezkongaiak*, *maitaleak*, *senar-emazteak* itzulpenarengatik.



Poesia idazten hasi zuen bere literatura ibilbidea, *Kaxa huts bat eta Alea* liburuekin. Nobelagintzaren arloan, 2019an *Deklaratzekorik* ez nobela argitaratu zuen, eta 2024an *Coca-Cola bat zurekin*. Itzultzaile gisa, beste lanen artean, Philip Roth-en *Nemesis* nobela eta Frank O´Hararen poesia euskaratu ditu. *Munduko Poesia Kaierak* bildumako editorea izan da zazpi urtez.



Eider Rodríguez

Eider Rodriguez idazlea Literaturan doktorea da, editore eta gidoigile gisa lan egin du, eta gaur egun irakaslea da EHUn.

Lau ipuin-liburu kaleratu ditu: *Eta handik gutxira gaur*, *Haragia*, *Katu jendea* eta *Bihotz handiegia*. Bere azken argitalpena *Eraikuntzarako materiala* eleberria da. Horrez gain, literatur kritika (*Idazleen gorputzak*, *Itsasoa da bide bakarra*), komikigintza (*Santa Familia*) eta itzulpena ere jorratu ditu.



aritu zen, eta gaur egun, bakarkako Verde Prato proiektuarekin dabil, eta nazioarteko jaialdietan jo izan du; besteak beste, Italian, Portugalen, Arabiar Emirerrietan edo Finlandian, baita estatu mailako jaialdi garrantzitsuenetan ere: Sónar, Primavera Sound edo BBK Live, esaterako. Haren abestiak zineman eta telesailetan ere erabili izan dituzte.



Ainhua Urien

Filosofia eta Antropologia ikasketak egin ditu. Liburu bat du argitaratua orain baino lehen: *Poesia, zaurien ukendu. Xabier Leteren arrastoan* (Pamiela, 2020). Hainbat ipuin argitaratu ditu han-hemen, baita zenbait hedabidetan kolaboratu ere. Horrez gain, kulturgintzako hainbat lanetan dabil. Jaialdi honetan aurkeztuko den *Ehun zaldi trostan* (Elkar, 2025) da bere bigarren liburua, Ignacio Aldecoa literatur-sorkuntzarako beka jaso duena.



Leire Vargas

Joan den udazkenean eman zuen *Bihotz-museo bat* poema liburua (Elkar, 2024). *Aurretik, Dena ametsa den irudipena* (Elkar, 2021) zuen argitaratua, euskarazko poesiari zegokion Irun Hiria saria jaso ostean. Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasi du EHUn, Gasteizen, eta, batez ere, horri eta literaturari lotutako lanak hartzen ditu. Gainera, Berrian zutabegile ari da, eta Argian kultur kazetari. Leirek "Ignacio Aldecoa Beka" euskarazko literatura- sorkuntzarako bekaren esleipenean parte hartu du.



Cristina Fernández Cubas 1980an egin zen ezagun bere lehen ipuin liburuarekin: *Mi hermana Elba*. Genero hori lantzen jarraitu zuen *Los altillos de Brumal*, *El ángulo del horror*, *Con Agatha en Estambul*, *Parientes pobres del diablo* eta *La habitación de Nona* bere azkeneko liburuarekin (2015). Horrez gain, hiru eleberri idatzi ditu — *El año de Gracia*, *El columpio* eta *La puerta entreabierta* —, antzezlan bat —*Hermanas de sangre*— eta memoria kontatuen liburu bat —*Cosas que ya no existen*—. Hainbat sari eta errekonozimendu jaso ditu: Setenil, Ciudad de Barcelona, Salambó, Dulce Chacón, Kritikaren Saria eta Narratibako Sari Nazionala. 2023ko azaroan, Espainiako Letren Sari Nazionala eman zioten, “haren narratibaren magia dela eta Espainiako ipuingile onenetakotzat hartu baitaiteke”.




Elvira Navarro

Elvira Navarrok eleberriak eta ipuinak argitaratu ditu. Haren libururik aipagarrienetako batzuk *La ciudad en invierno*, *La trabajadora* eta *Las voces de Adriana* dira. Nobelako Jaén Saria, Kritikaren Andaluzia Saria eta Cálamo Extraordinario saria irabazi ditu. *Granta* aldizkariak 35 urtetik beherako espainierazko 22 narratzaile onenen artean hautatu zuen. *La isla de los conejos* ipuin liburua atzerriko literaturako National Book Award sarietarako izendatua izan zen.



Euskal Filologian lizentziatua. Euskara eta Literatura irakaslea izan da.


Ignacio Aldecoa Kultura Etxean Ipuin eta narrazio laburraren irakurketa Kluba dinamizatzen du.



Luis Mateo Díez


Narratiba Sari Nazionala bi aldiz eta Kritikaren Saria beste bitan eskuratu duen gaztelaniazko egile bakarra da, *La fuente de la edad* (1986) eta *La ruina del cielo* (1999) eleberriei esker. 2023an Miguel de Cervantes saria jaso zuen. Espainiako Errege Akademiako kidea da 2001. urtetik.

José María Merino eta Juan Pedro Aparicio leondar herrikideekin batera Filandón delako ohitura berreskuratu du.



José María Merino

Jose Maria Merinok poesia, ipuina, eleberria eta saiakera landu ditu. Besteak beste, Kritikaren Saria, Narratiba Sari Nazionala, eta Espainako Letren Sari Nazionala jaso ditu. Ipar Amerikako eta Panamako akademietako kide da, eta Espainiako Errege Akademiako kide. [Filandón](#) delako ohitura berreskuratu du.



Juan Pedro Apariciok, bere ibilbidean zehar, landu dituen hiru generoetan sari esanguratsuak lortu ditu: Nadal nobela saria 1988an, *Retratos de ambigú* lanagatik; ipuin alorreko Setenil 2005ean, *La vida en blanco* lanagatik, eta, azkenik, Jovellanos Nazioarteko Saiakera Saria 2016an, *Nuestro desamor a España* lanagatik. 2012an Letren Gaztela eta Leon saria jaso zuen bere obra osoagatik. Londresko Cervantes Institutuko zuzendaria ere izan da.


[Filandón](#) delako ohitura berreskuratu du.

Joxemari Iturralde

Filosofia eta Letretan lizentziatua (Lenguas Románicas sailean). Euskal Literaturako Katedraduna. 1977an Bilbon, "POTT" banda literarioa sortu zuen Bernardo Atxaga, Manu Ertzila, Jon Juaristi, Ruper Ordorika eta Joseba Sarrionandiarekin batera. Ia ehun liburu kaleratu ditu urte hauetan; hauek dira duela gutxi argitaratuak: *Udaberria sutan* (poesia) (Pamiela); *Jamaikako neska* (eleberria) (Pamiela). Tailerrak ematen ditu azkenaldi honetan, idazketa literarioa lantzeko. Euskaltzain Urgazlea da.

Juan Montiel

Juan José Montielek "Premio Internacional de Cuento Ignacio Aldecoa" lehiaketaren azken irabazlea da. Orain arte, hogeita hamar sari eta goraipamen baino gehiago lortu ditu; horien artean: Julio Visconti Fundazioaren Kontakizun Lehiaketa (2017), Juan Martín Sauras Kontakizun Laburren Lehiaketa (2018), Bargasko Literatur Sariaketa (2020), Terueleko Poesia Maitatzaileen Lehiaketa (2021) Ricardo León Literatur Lehiaketa (2021) edo Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa (2021). Montielen kontakizunak hogeiren bat antologiatan sartu dituzte.



teoria eta literatur kritikaren, literatura konparatuaren eta literatura frantsesaren irakasle eta ikertzaile izan da. Narrazio-lanen egilea ere bada: *El monte del dragón* (2004) eta *Expansión de los círculos* (2008); saiakerena: *Teoría del exceso* (2025); eta poesiarena: *Sábanas de niebla* (2000), *Crítica de la razón impura* (2003), *Cosmópolis* (2006) eta *Anástasis* (2010). Georges Perec eta Michel Butorren lanak itzuli ditu.



María Fernanda Ampuero

María Fernanda Ampuero Madrilgo artista latinoamerikar nabarmenetakotzat aukeratu zuten, hiri horretan bizi baita 2005etik. Haren lehen ipuin liburua, *Pelea de Gallos* (2018), hainbat hizkuntzatarara itzuli da. *The New York Times* egunkariak urteko hamar liburu onenen artean aukeratu zuen. *Sacrificios Humanos* (2021) lanak bigarren postua lortu zuen Tigre Juan sarian, eta *The New York Times*ek beldurrezko hamar liburu onenetakoen artean aukeratu zuen. Argitaratu duen azken liburua *Visceral* da (2024). 2024an Civitella Rainieri egonaldi ospetsua eman zioten.



Jon Bilbao

Jon Bilbao meatze-ingeniaria eta Ingeles Filologian lizentziaduna. Ipuin liburua hauek idatzi ditu: *Como una historia de terror* (2008; Ojo Crítico de Narrativa saria), *Bajo el influjo del cometa* (2010; Tigre Juan saria eta Euskadi literatura saria), *Física familiar* (2014) eta *Estrómboli* (2016). Eleberrigile gisa egindako lanen artean, *Basilisco* (2020), *Araña* (2023) eta *Matamonstruos* (2024) obrek osatutako zikloa nabarmentzen da.



zauri, *Zu bezain ahul* eta *Ez naiz ni* – lau nobela – *Amaren eskuak*, *Musika airean*, *Aitaren etxea*, eta *Maitasun kapitala* eta poesia liburu bat, *Orain hilak ditugu*, idatzi ditu. *Aitaren etxea* nobelak Euskadi Saria jaso zuen 2019an, *Amaren Eskuak* liburuak sari ugari jaso ditu, besteak beste English Pen Award ingelesezko bertsioan, eta pelikula egin zen nobelan oinarrituta. Bere ipuinetan oinarrituta antzerki lanak egin dira eta hainbat antologietan argitaratu dira, adibidez, *Best European Fiction 2017* eta *The Penguin book of Spanish short stories* antologietan. Bere lanak hainbat hizkuntzatara itzulita daude.

Pribatutasun politika

Irisgarritasuna

Salaketa kanala

ANTOLATZAILEA:



EGOITZA:



INFORMAZIO GEHIAGO:

649713847
aldecoafestibala@araba.eus



LAGUNTZAILEAK:

